

ARRAZISM GABEKO INURRITEGIAK

Xenofobiaren hedapenean
tokiko Facebook-eko foroen eragina






Ondorioak eta laburpen exekutiboa

Inurrien mugimendu itxuraz kaotikoa inurritegitik sartu-irtenean ez da ausazkoa eta ezta antolaketarik gabea ere, lehen begi kolpean hala badirudi ere. Aitzitik, edozein inurritegi arretaz begiratzen baldin bada, bertako “biztanleen” ibilbideak erregistratzen baldin badira eta jasotako informazioa sistematizatzen baldin bada, inurrien portaerarekin lotutako zenbait patroï eskuratu ahal dira, beren ibilbideak eta jarduna ulertzeko, aurreikusteko eta, are, horietan esku-hartzeko aukera ematen digutenak.

Inurritegien eta gizarte-sareen (Twitter, Facebook, Instagram, TikTok...) arteko antzekotasuna haietako foro, orri, talde edota blogetan pertsona erabiltzaile kopuru guztiz ugaria nola mugitzen den ikustean hautematen dugu. Inurriak bailiran mugitzen dira, elkarren artean gurutzatzen dira, karga edo ibilbideak trukatu, inurritegian sartuz edo bertatik irtenez, zenbaitetan jarraitzen dituzten eta beste batzuetan jarraitzen ez dituzten ilaretan. Gure taldean interesgarritzat jo genuen antzekotasun hori, izan ere, espazio hori arretaz eta zorroztasun zientifikoz begiratu gero, gizarte-sareetan ekin eta elkarreraginean izateko dauden eredu ezberdinak, edo, kasu honetan bezala, gizarte-sare zehatz bat gutxienez, ezagutzeko aukera dugula proposatzeko bide eman zigun horrek.

Horrela, Gipuzkoako SOS Arrazakeriak erakundeko gure lantaldeak, CEAR-Euskadiren laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Berdin Hitzarmenaren barnean emandako finantzazioarekin, Gipuzkoan Facebook sareko zazpi tokiko foro birtual begiratu eta aztertu ditu, inurritegiak bailiran (tokiko foro modura ulertuta herri edo hiri berean bizitzea edo bizi izana izendatzaile komun dutenen arteko topaketarako espazio modura irekitzen diren “inurritegiak”, zeintzuen bidez auzotarrek leku horretako auzo komunitatearekiko nolabaiteko kidetasun sentimendua berreskuratzen baitute).

Horietan iritzi publiko arrazista eta xenofoboek korronteen hedapenean patroïak identifikatzeko xedez, populazio-irizpideak eta errealitate migratzaile eta errefuxiatuen hurbiltasuneko irizpideak jarraituz egin dugu hautua (esate baterako, Oñati: 11.300 pertsonako udalerria, 2018ko irailetik asiloa eskatzen duten pertsonentzako aterpetxe bat duena, zeinaren bidez bertako herritarrengana pertsona errefuxiatuen errealitatea hurbiltzen baita). Eraitza **“arakatutako 7 inurritegien”** hautaketa hau izan da:




	Donostia	Errenteria	Irun	Eibar	Tolosa	Zumarraga / Urretxu	Oñati
TALDEAREN izena	No eres de DONOSTI si...	Tu no eres de Errenteria si...	No eres de Irun si...	Eibar Opina	Tolosarras	Ez Zumarraga Urretxukoa ...	Oñatiku a naiz eta arro nago
Talde mota	Pribatua	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa
Kide kopurua	7.028**	18.370	10.980	9.953	6.531	5.584	1.285

*2020/11/25eko kopurua.

**Foro honetan hiri bati dagokion kide kopurua urria da Donostian asko direlako aktibo dauden foroak, eta herritarrak horien artean banatzen dira.

Inurritegi horiek ezaugarri hauek partekatzen dituzte:

- Facebook sarean irekitzen dira talde ikusgai, ireki edo pribatu formatuan (talde ezkutuko edo sekretuak ez bezala, non gonbidapen pertsonalizatu eskusiboaren bidez soilik sar baitaitekeen).
- Esaten genuen eran, auzo, herri edo hiri berean bizi direnak (edo bizi izan direnak) batzen dira. Auzo harremanen balizko simulatzaile modura funtzionatzen dute.
- Online munduaren eta offline munduaren arteko zubitzat hartzen dira, sare birtualen bidez hezur-haragizko pertsonen artean informazioa eta iritzia helarazteko eginkizuna betetzen baitute.
- Izen ezaguterrazak ipintzen dituzte, udalerriarrekiko kidetasun elementua nabarmenduz izendapenean bertan: "No eres de Donosti si...", "Ez zara Zumarraga Urretxukoa...", "Tú no eres de Errenteria si...", "¡¡¡Somos de Irun sí o sí!!!", "Oñatikua naiz eta arro nago"...
- Hautatutako foro guztiak ekimen partikularrez sortuak izan ziren (Udalek irekitzen dituzten foroak ez bezala, horiek ere hor dira nahiz eta ikerketa honetan ez ditugun aztertu). Foru bakoitzean argitaratzen diren edukiak gainbegiratzeaz pertsona indibidualak arduratzen dira, haietako administratzaile direnak, taldeko moderatzaileen laguntzarekin.
- Beren "horman" albisteak argitaratzen dira ("post" izenekoak, auzoarekin edo herriarekin zerikusia dutenak, maskota bat galdu dela ohartaraztekoak, tren-ordutegiak azaltzekoak, jaietako programak azaltzekoak, farmazia-zerbitzuen berri ematekoak, pandemiak



eragindako itxialdian zehar erosketak egiteko laguntza eskaintzekoak edota txangoan joateko topaketak egitekoak...

- Foro bakoitzeko orrialde nagusian argitalpen-arauak ageri ohi dira.


Facebook talde horretako kide dira gure **“inurriak”** (Donostia, Errenteria, Irun, Eibar, Tolosa, Zumarraga-Urretxu eta Oñatiko auzotarrak). Ikus dezagun orain “inurritegien” artean izan duten portaeraren gaineko gure **“esplorazioaren”** emaitza. Esplorazio horretan haietan iraulitako aipuak ikusi, erregistratu eta aztertu ditugu, “inurritegira” “atzerriko inurriak” iritsi direnean, edo pertsona migratzaile edo errefuxiatuen inguruko iritziak iritsi direnean. Esplorazio horren emaitzak, ia bi urtez egindakoa (2019ko urtarrila eta 2020ko azaroa bitartean), zortzi ondorio hauetan laburbiltzen ditugu:

1. Tokiko foroetan aipu arrazisten presentzia ia nulua da. 31 elkarrizketa 2 urtetan 60.000 pertsona batzen dituzten taldetan.

Bi urtetan, aztertu ditugun tokiko zazpi foruetan, non 59.731 pertsona batzen baitira, soilik 31 elkarrizketa sortu dira atzerritarren, migrazioari eta asiloari buruz. Jarraian gaineratzen dugun taulan udalerraren arabeko banakapena zehazten dugu: Donostian, esate baterako, soilik 11 elkarrizketa izan dira 2 urtetan (ia elkarrizketa bakarra bi hilean behin). Errenterian, 7 elkarrizketa soilik ireki dira (4 hilean behin 1). Beste foro batzuetan, Oñatin kasu, ia ez da mezurik sortu; eta Eibarreko foroan ez da aipu bakar bat ere aurkitu. Datu horiek adierazten dutenez, posten trafikoa sortzen denean ere, aipu arrazistak oso urriak dira halako “inurritegietan”, batez ere horietako bakoitzean egunero argitaratzen diren elkarrizketa guztiak kontuan izanik.

TALDEAREN IZENA	Kide kopurua	Migrazio eta asiloari buruzko elkarrizketa-ildoak	Aztertutako aipuak guztira	Aipu arrazistak
No eres de DONOSTI si...	7.028	11	36	23
Tu no eres de Errenteria si...	18.370	7	15	15
No eres de Irun si...	10.980	6	5	14
Eibar Opina	9.953	0	0	0
Tolosarras	6.531	2	16	9
Ez Zumarraga Urretxukoa...	5.584	4	5	4
Oñatikua naiz eta arro nago	1.285	1	1	0
GUZTIRA	59.731	31	78	65


- Hori horrela da **halako foroen funtzionamenduan izaten diren bizikidetzara-rauen** ondorioz, non aipuak argitara ditzaketen, betiere, oldarkorrak ez baldin badira, iraingarriak ez baldin badira eta “inurritegiaren” barneko edo kanpoko inori begirunea galtzen ez bazaio.



Arau horien adibide bat aurkitzen dugu “No eres de DONOSTI si...” foroan. Bertan zehazten denez, “[argitalpenek ez dute politikarekin zerikusirik izan behar, ez da irainik edo errespetu ezarik baimentzen edo, bestela, alboratu egiten dira edo, are, pertsona erabiltzaileak kanporatu egiten da](#)”. “No eres de Irun si...” izeneko foroan ere, zehazten denez derrigorrezkoa da “[argitalpenek ingurune atsegin bat sortzen laguntzea eta pertsona erabiltzaileek elkarrekiko errespetua izan behar dute](#)”. “Tu no eres de Errenteria si...” foroan gaineratzen denez “[ez da onartuko buloak hedatzea](#)”. Eta “Ez zara Zumarraga Urretxukoa...” foroan “[iritzi-askatasuna defendatzen da, baina irain eta laidorik gabe](#)”.

- **Foroak “administratzaile” edo “moderatzaile” modura administratzen dituztenak** arau horien aurka doazen mezuak kentzeaz arduratzen dira. Zuzenean egiaztatu ahal izan genuen hori ikerketa honen landa-lana osatzeko, gure taldean, diskurtso xenofobo horren aurreko hala “inurrien” nola administratzailearen erreakzioa aztertu asmoz fikziozko aipu bat eratu, inurritegian sartu eta zintzilikatzea erabaki genuenean. Helburu horrekin, 2020ko uztailaren 1ean, goizeko 11:53an, mezu hau argitaratu genuen, Zumarraga eta Urretxuko herrietako tokiko foroan. “[Stoy sin cobrarel ERTE tengo 2 hijospero mi vecino de arriba q esinmigrantecobrandoayudasdesde q vinoaqui PRIMERO LOS DE AQUI!!!!](#)”. Eta Irungo tokiko foroan argitaratzera jo genuenean, administratzaileak ez zigun baimenik eman. Eta mezu hori bera Zumarraga eta Urretxuko tokiko foroan argitaratzea lortu genuelarik, administratzaileak ezabatu egin zuen bi ordu baino gutxiagoan.

Izan ere, argi dago, hemen laburbiltzen dugun txosteneko 1. kapituluan aipatzen genuen eran, migrazioari eta asiloari buruz polemikan sartu asmo dutenentzat, Facebook sareak bestelako foroak gaitzen dituela, talde itxi sekretu direnak (gizarte-sarean ere ugariak diren gailentasun eta eskuin muturreko orrietako edukiak tokiko mailan errepikatzeakoak). Orri edo sareen inguruan dabilzan taldeak dira, esate baterako, [Orgullonacional](#), [Ejército español](#), [Adelante España](#) edo [Barcelonase queda en España](#) Facebook sareak berak bertan behera utzi zituenak 2019an, pertsona migratzaile eta errefuxiatuen aurka indarkeria akuilatzeagatik, beste delitu batzuen artean.




2. “Inurritegietan” agertzen diren aipu xenofoboak kanpoan lehertzen diren albisteen uhin hedakorraren ondorio baino ez dira: tokiko foroetan ez da diskurtso arrazista sortzen.

Foroetan argitaratze-arauak egon arren eta administratzaileek beren rola bete arren, “inurritegian” iragazten diren aipu arrazistei dagokienez, garrantzitsua da horien jatorria azpimarratzea. Izan ere, kasu gehienetan, eztabaida ez da foroan hasten; solasaldia ez da inurritegiaren barnean sortzen. Foroan argitaratzen diren aipu arrazista eta xenofoboak hedabide jeneralistaren batek (egunkaria, irratia, telebista...) albiste polemiko bat argitaratzen duenean sortzen dira, inurritegiaren barnera ekartzen dena. Beste modu batera esanda, foroak lehendabizi hedabide jeneralista batek argitaratutako jazoera baten transmisio-uhalaren zeregina betetzen du. Eta garrantzitsua da hori kontuan izatea Facebook sareko tokiko foro horien funtzionamendua aztertzeko garaian, ez baitira xenofobiaren sustatzaile, baizik eta hedabide jeneralistetako orrietan eta haietako aipuen foroetan agertzen diren albisteen uhin hedakorraren hartzaile.

Ondorio horretara iritsi gara, izan ere, kasualitatearen apetaz, proiektua gauzatzen ari ginen urtean zehar, inurritegia aztoratzen denean gertatzen dena aztertzeko baliaigarri izan diren zenbait gertaera jazo dira. 2020. urteko abuztuaren hasieran jatorri magrebtarreko mutiko talde bat, itxuraz kalean bizi zirenak, Pasai Antxoko distrituan elkartzen hasi zen maiz (aztertutako gure 7 “inurritegien” zerrendan egon ez arren, duen garrantziagatik jaso duguna). Lapurreta kopuruak gora egin zuela ikusi zen, eta lapurreta horien egile modura jatorri magrebtarreko gazte taldea seinatu zen. Herritarren segurtasunik eza ohiko eztabaidagaia hasi zen izaten auzotarren artean. Herriko gazteen eta lapurreten ustezko egileen artean elkar jotzeko geraldia egin zuten eta, horren harira, poliziak guztiak identifikatu zituen. Suterako osagai guztiak genituen kasu horretan: etnia jakin bateko (magrebtar) talde baten lapurretak, komunitatean segurtasunik eza areagotu izanaren inguruko adostasuna, herriko gazteen aurkako “zigor” modura interpretatu zen poliziaren esku-hartzea.


Bi bandoetako gazteen arteko geraldia hedabideetara iritsi zen eta, une horretan, ez lehenago, “Fermintxo, elpató de la ría de Antxo” izeneko facebook sareko tokiko foroak auzotarren artean kezka sorrarazten duten gertaera batzuen transmisio-uhalek eginkizuna bete zuen. Ideia bat nabarmentzearen garrantzia azpimarratu behar dugu, Gipuzkoako tokiko foroak aztertzean ere agertzen dena: tokiko foroan ez da polemika “fabrikatzen”, diskurtso gogor eta



aurreiritziz beteriko erresonantzia-kaxa bat da, baina ez da diskurtsoaren sortzaile.

Leku hauetan sortzen da mezuen trafikoa: Radio de Donosti, Gipuzkoako Hitza, Gipuzkoa Gaur eta Diario Vasco hedabideetan Facebook orriak (azken bi horietan batez ere). Horietako aipuen foroetan, argitaratzen diren mezuak horrela sailkatzen ditugu: **neutroak**, (gaiaren inguruan hitz egiten dute, baina jarrera jakinik gabe); **Kontra-kontakizuna**, (gertaera horiek immigrazioarekin lotzen dituztenak kritikatzeko dituzte) **gorroto oldarkorra** eta **muturreko gorrotoa** (kolektibo migratzailea kritikatzeko duten mezuekin edo zuzenean kolektibo horren aurkako erantzun erasokorra sustatzen edo bultzatzen dituzten mezuekin lotuta). Aurreko sailkapenari egun horietan argitaratutako mezuak gaineratzen zaizkio, gertaera horiekin zerikusirik ez zutenak. Zenbait ondorio:

- Gaiarekin loturarik ez duten aipuak dira gehiengoa, Diario Vasco hedabidearen Facebook sareko foroan izan ezik. Horrek adierazten duenez, mezu oldarkor edo muturrekoen kutsatze-eragina mugatua izan zen. Hedabide digitalen kasuan, Gipuzkoa Gaur eta Diario Vasco hedabideetan gaiaren inguruan iritzia emateko parte-hartze aktibo bat islatzen da, gertatutakoarekin zerikusirik ez zuten mezuak argitaratzearen alde egiten zutenak gaindituz; bestalde, Facebook sareko tokiko “inurritegian” (herriarekiko atxikimendu handiagokoa) gaiari entzungor egiten diotenen eta parte hartzen dutenen arteko banaketa ia berdina da.
- Kontra-kontakizunek eta mezu neutroek izan duten kontrapisua desberdina da foro eta argitalpenetan. Gipuzkoa Gaur hedabidean lehendabizikoek erruz gainditzen dute gorrotoaren diskurtsoa; aztertutako beste hedabidean, Diario Vasco hedabidean, ordea, gorrotozko diskurtsoa gailentzen da neutroaren eta kontra-kontakizunaren aurrean. Facebook sareko tokiko foroan ere emaitza desberdina da. Kontzentrazioaren argitalpenean gorrotozko diskurtsoaren aurkako mezu argiak izan ziren. Aitzitik, bideoaren argitalpenean diskurtso arrazista bestearen gaintik kokatzen da, postaren argitalpenean gertatzen den moduan. Edozein kasutan, mezu neutroen edo gorrotozko diskurtsoaren aurkako zenbateko osoa handiagoa da modu argian, 145 mezurekin 110 mezuren aurka. Facebook sareko tokiko foroaren kasu zehatzean erlazioa honakoa da: 38 aipu neutro eta upstander eta bestaldean eduki arrazistako 30 mezu eta polemikatik aldentzen diren 75 mezu.



	NEUTROA + UPSTANDER	DISKURTSO OLDARKORRA + ARRISKUTSUA
GipuzkoaGaur	89	50
Fermintxo, (Kontzentrazioko argazkien argitalpena)	22	10
Fermintxo, ("Vivaelpueblo y la juventud de Antxo!" argitalpena)	2	4
Fermintxo, (Bideo bat barneratzen argitalpena)	14	16
Pasaiaiko Hitza	0	0
Radio Donosti	0	0
Diario Vasco	18	30
GUZTIRA	145	110

Laburbilduz, Facebook sareko tokiko foroak ez zuen egun horietan Pasai Antxon sortu zen tentsioa areagotzea ekarri. Era berean, foroak ez zuen testuinguruan ipintzeari begira ekarpenik egin Aldundiko harrera-pisuak lapurreten egileekin loturari ez dutela erakusteko informazioa eskainiz. Pedagogia lan hori, udal instituzioek berehala koordinatzekoa, ezinbestekoa zen gizarte Politikako Diputatuak bi hilabete beranduago Batzar Nagusietan eskainitako datu objektiboekin, pisu horien eta lapurreten arteko loturarik eza agertuz, itzaltzea lortzen ari ez den sutea heda zedila ekiditeko. Horrek gure ondorioa indartu baino ez du egiten, hau da, instituzioek funtsezko zeregina betetzen dutela udalerrietan sute xenofoboak heda daitezela ekiditeari so.

3. "Betikoak" gorrotatzen dituztenak betikoak dira beti eta ez dira % 1era iristen.

Aztergai dugun kasuan, eta 2 urteko epealdi honetan argitaratu diren mezu arrazista eta xenofoboek dagokienez, argitaratzen dituztenak beti pertsona berdinak direla nabarmentzen da. Eta, portzentajeari helduz, taldean duten garrantzia ia ezdeusa da.

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, Donosti taldean parte hartzen duten 7.028 pertsonetatik, soilik 17 izan dira noizbait aipu arrazistaren bat idatzi dutenak. % 1era ez dira iristen, inondik ere. Gauza bere esan daiteke gainerako tokiko foroen inguruan. Errenteriako taldea osatzen duten 18.370 kideen artean, soilik 12 izan dira 2 urteetan aipu arrazistaren bat argitaratu dutenak. Tolosan, 6 pertsona baino ez. Oñatin inork ez du halakorik argitaratu.

Aipu arrazistetan parte hartzen duten pertsonak


TALDEAREN IZENA	Kide kopurua	Aipu arrazistetan parte hartzen duten pertsonen kopuru osoa, horiek bultzatu, babestu edo baztertuz	Aipu arrazistak egiten dituzten pertsonen kopurua	Kide guztiak kontuan izanik hartzen duten portzentajea
No eres de DONOSTI si...	7.028	24	17	% 0.2
Tu no eres de Errenteria si...	18.370	12	12	% 0.1
No eres de Irun si...	10.980	13	13	% 0.1
Eibar Opina	9.953	0	0	% 0
Tolosarras	6.531	12	6	% 0.1
Ez Zumarraga Urretxukoa...	5.584	4	4	% 0.1
Oñatikua naiz eta arro nago	1.285	1	0	% 0
GUZTIRA				

Hori hainbat alderdiren ondorio da, aurreko atalean adierazitakoekin batera.

- **Lotsa arrazista anonimotasunaren inpunitaterik gabe**

Herri batean edo hiri bateko auzo batean elkarrekin bizi diren pertsonen osatutako tokiko foroetan ez dago zenbaitetan kutsu xenofoboko amorrua gizarte-sareetan erraietatik ateratzea eragiten duen anonimotasunik. Haatik, inork ezagutzen ez zaituenean eta atzerriko pertsonak zure herrira maltzurki jokatu, gizarte prestazioak gehiegikeriaz erabili eta gizarte babeseko etxebizitza bat okupatzera etorri direla uste izatearen amorrua sentitzen duzunean, gizarte-sareak bilatzen ari zaren zabortegia izan litezke, fobia eta xenofobia bertan jaurtitzeko, anonimotasun horrek ematen duen inpunitatearekin.

Hori ikusten dugu, esate baterako, "Oñatikua naiz eta arro nago" izeneko Oñatiko taldean. Bertan bi urteko argitalpenetan aipu arrazista bakar bat agertzen baita. Aipu hori VOX alderdi politikoak 2020ko uztailean herrian antolatutako ekintza baten harira argitaratzen da. Auzotar batek taldeko horman idatzi zuen: "Hayquerecordarqueelfascismoalientaelodiohacia los colectivosmásvulnerables de la sociedad (Gogorarazi behar da faxismoak gizartean zaugarrien diren kolektiboekiko gorrotoa akuilatzen dela) Son homovox, xenovox... (Homovox, xenovox dira)". Aitzitik, "No eres de DONOSTI si..." taldean, denbora-tarte berean, 23 aipu arrazista argitaratzen dira. Ezberdintasun kuantitatibo hori ez zaio kide kopuruari egozten. Hori horrela gertatzen da hiri inguruetan anonimotasuna sentimendu xenofoboak izan eta talde handi bateko (edo talde txiki batekoa baina hirikoa, dinamika hiritarrak dituena, ez landa izaerakoak) kide izateak



ematen dien, talde horrekin identifikatzen ez zaielarik, inpunitatearekin adieraz dezaketela sentitzen dutenek aterpe modura baliatzen duten aterki delako oraindik.

- **Bi ordu inurritegian: Birritan pentsatzeko denbora gehiago**


Talde handitan eta talde txikitan, hirietako auzoetako taldetan eta herrietako taldetan, argitaratzen diren mezuen kalitatean eragina duen beste alderdi bat pertsona erabiltzaileek “inurritegian” ematen duten denbora da.

- Denbora gutxi ematen denean (esate baterako, blogetan edo web-orrietan, non “inurri” bakoitzak batez beste 3 minutu igarotzen baititu, Postcronek egindako ikerketa baten arabera), tekleatu eta argitaratzen diren pentsamenduak erraietatik ateratzen dira, bulkadak eraginda, emozionalak dira eta irrazionalak (gure garuneko 1. sistematik kudeatzen direlako, erreakzio automatikoez eta errepikatzen diren jokabideez arduratzen dena).
- Haatik, “inurritegian” denbora gehiago ematen denean (Facebook sareko tokiko taldeen kasuan esaterako, non kide bakoitza 20 minutu eta 2 ordu bitartean egoten baita bertan sartzen den aldiro, Postcronek egindako ikerketa horrexen arabera), idazten diren argitalpenak gogoeta gehiagorekin eginak, arrazionalagoak eta neurritsuagoak dira (gure garunaren 2. sistematik kudeatzen direlako, pentsamendu motel eta landuez arduratzen dena).

Horrekin ondoriozta dezakegu tokiko foroetan pentsamendu azkar eta bulkadatsuen ondoriozko aurreiritzi gutxiago izaten direla, izan ere, inurritegian ematen duten denbora gehigarriarengatik, aurreiritzi horiek gogoeta gehiagoz egindako iritzi bilaka daitezke eta, horrenbestez, ez horren xenofoboak.


4. Lau mezu xenofoboetatik hirutan “atzerriko inurria” “inurri gaizkilearekin” identifikatzen da.

Edozein modutan, eta goran aipatutakoa hor badago ere, ikerketa honetarako egindako landa-lanak erakusten duenez, jakina, badira diskurtso xenofoboak Facebook sareko tokiko inurritegietan.



Diskurtso horren ezaugarri da, gaiari helduz, gehienetan, tokiko foroa den udalerriko segurtasun eta delinkuentziarekin lotutako albisteen gaineko aipu modura azaltzea. Ikus dezagun hori hurrengo zerrendan. Bertan azken bi urtetan aipu xenofoboaren hariak sorrarazi dituzten albisteak jaso ditugu, tokiko "inurritegi" bakoitzaren arabera banakatuta.

DATA	Aipuen haria sorrarazten duen albistea	Zein tokiko forotan aipatzen den
2020/08/25	Discoteca latina y casoscovid (Diskoteka latindarra eta covid kasuak)	No eres de DONOSTI si
2020/01/16	Euskalnews.com medio racista (Euskalnews.com hedabide arrazista)	No eres de DONOSTI si
2020/06/12	Ingreso en prisión de delincuente (Gaizkilea espetxeratua)	No eres de DONOSTI si
2020/02/25	Manifestación de ongporGrecia (Greziaren aldeko GKE erakundearen manifestazioa)	No eres de DONOSTI si
2020/02/21	Muertes migrantes en Mediterráneo (Migratzaileen heriotza Mediterraneoan)	No eres de DONOSTI si
2019/01/21	Muerte de niños sirios en EEUU (Haur siriarren heriotza AEBn)	No eres de DONOSTI si
2019/12/06	Explotación laboral migrante aquí (Migratzaileen lan ustiapena hemen)	No eres de DONOSTI si
2019/11/29	Robo en un spa magrebí (Magrebtar batek spa batean egindako lapurreta)	No eres de DONOSTI si
2019/04/27	Pelea en el Nautico y 7 detenidos (borroka Nautikoan eta 7 atxilotu)	No eres de DONOSTI si
2019/11/02	Robo de móviles por los de "siempre" ("Betikoek" egindako mugikorren lapurretan)	No eres de DONOSTI si
2020/11/20	Agresión a chica por hombre extranjero (Neska bati eraso atzerriko gizonek)	No eres de Errenteria si
2020/06/08	Protestas por George Floyd (George Floyden kasuaren ondoriozko protestak)	No eres de Errenteria si
2020/08/04	Recogida de firmas para echar a marroquíes (Marokoarrak botatzeko sinadurabilketa)	No eres de Errenteria si
2020/11/06	Agresión a migrante marroquí (Erasotzaile magrebtarra labana batekin)	No eres de Errenteria si
2019/04/14	Aumento de población extranjera (Atzerriko populazioak gora egin du)	No eres de Errenteria si
2020/07/06	Altercado provocado por extranjero (Atzeritarrak eragindako liskarra)	No eres de Irun si
2019/12/12	Extranjerita mañtrando en pisos vacíos (Atzeritar batek iruzur egiten du hutsik dauden pisuetan sartuz)	No eres de Irun si




2019/06/05	Pelea en la calle (Borroka kalean)	No eres de Irún si
2019/02/09	Falta de dinero para rehabilitar Palacio (Jauregia eraberritzeko dirua falta da)	No eres de Irún si
2020/03/24	Serviciodomésticocuidadorasencovid (Etxeko zaintzaileen zerbitzua covidean)	Tolosarras
2019/04/27	Agresión para robo del móvil (Erasoa mugikorra lapurtzeko)	Tolosarras
2020/03/01	Vandalismocontracontenedores (Bandalismoa edukiontzien aurka)	Ez zara Zumarraga Urretxukoa
2019/06/03	Accidente de tráfico nocturno (Trafiko-istripua gauetz)	Ez zara Zumarraga Urretxukoa
2019/03/04	Menoresfugados de internado (Barnetegitik ihes egindako adin txikikoak)	Ez zara Zumarraga Urretxukoa
2019/01/25	Viviendas de alquiler social (Gizarte-alokairuko etxebizitzak)	Ez zara Zumarraga Urretxukoa
2020/07/07	Evento de Vox (Voxen ekitaldia)	Oñatikua naiz eta harro nago

Elkarrizketa-ildo horiek kategorien arabera sailkatzen baldin baditugu, esate baterako, “No eres de Donostisi...” taldean, aipu arrazisten % 91,3 delinkuentziarekin eta herritarren segurtasunarekin lotutako albisteen ondorioz sortzen dira. Portzentaje hori % 88.9koa da “Tolosarras” taldearen kasuan eta % 66.7koa “Tu no eres de Errenteria si...” foroan, non epaileen ustezko irmotasunik eza salatzen dituzten aipuak ere agertzen diren, poliziaren beraren eskutik emandako ontasuneko tratu batekin batera, inpunitate larriko mezu bat helaraziz.

“Delinkuentzia eta herritarren segurtasuna” kategoriaren atzetik kokatzen da “Gizarte-prestazioen irisgarritasuna” kategoria, xenofobia eragiten duten albisteen rankingean ere postu adierazgarria duena: % 57.1 “No eres de Irúnsi...” foroan, adibide batera. (Zenbaitetan ordena publikoa asaldatzearekin zerikusia izan duen gertakari batetik eratortzen den eztabaida hori eztabaida nagusi bilakatzen da. Eta lapurreta bat izaten hasten dena, prestazioen gehiegikeriaren inguruko eztabaida izaten da azkenean). Hirugarrenik, GKE erakundeek edo herritarren harrera-sareek pertsona migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak aldarrikatuz antolatutako manifestazio, elkarretaratze edo protesta-jardueren ondorioz sortutako albistek nabarmentzen dira.

Aipuak eragin dituen albiste nagusiaren arabera aipu arrazistak banakatzen dituen taula estatistikoa horrela geratuko litzateke:



Aipua eragiten duen albiste nagusiaren arabera aipu arrazisten banakapena (ehunekotan)

TALDEAREN IZENA	Gizarte-prestazioetarako irisgarritasuna	Delinkuentzia/Herritarren segurtasuna	GKE erakundearen protesta	Besterik
No eres de DONOSTI si...	% 8.7	% 91.3	% 13.0	% 4.3
Tu no eres de Errenteria si...	% 26.7	% 66.7	% 13.3	% 6.7
No eres de Irun si...	% 57.1	% 35.7	% 7.1	0
Eibar Opina	0	0	0	0
Tolosarras	0	% 88.9	0	% 11.1
Ez Zumarraga Urretxukoa...	% 25.0	% 50.0	0	% 25.0
Oñatikua naiz eta arro nago	0	0	0	0

Gaineratzen dugun beste gai bat da administrazioak kolektibo immigrantearen alde erakusten duen ustezko aldeko tratua.

5. Gizon magrebtarrek ez dute "auzotar arraroen" kategoria gainditzen otredade eskalan.


Goiko zerrendako aipamen xenofobo horiek, orain laburbiltzen dugun txostenaren gorputz nagusian azaldu dugun moduan, populazio magrebtarren aurkakoak dira ia eskusiboki (zehazki, gizon magrebtarren aurka), aipamen negatiboen artean jomuga bilakatzen diren kolektiboen artean nabarmentzen dena. Eta nahiz eta tokiko foroetan badiren beste nazionalitate batzuekin lotutako beste aipamen xenofobo batzuk baina kopuruari dagokionez ez horren adierazgarriak (emakume etorkinei buruzkoak -etxez etxeko zerbitzuan lan egiten duten emakumeak edo higiezinaren merkaturako iruzurgile profesionalak diren emakumeak-, aisialdia dantzalekuetan ematen duen populazio latinoari buruzkoak; edo Siria edo Afrikako pertsona errefuxiatuei edo Mediterraneoan hildakoei buruzkoak), jatorri magrebtarra duten migratzaileak (marokorrek eta aljeriarrek) dira inurritegietan jaurtitako diskurtso arrazisten jomuga nagusia. Ikus dezagun hurrengo taulan:

Aipu arrazista eta xenofoboetan aipatutako pertsonen nazionalitate edo jatorri etnikoaren arabera aipuen banakapena (portzentajea)

TALDEAREN IZENA	Afrikarra edo Afro_ondorengoa	Magrebtarra soilik	Latindar amerikarra	Europa Ekialdea	Siria	Pakistandarra	Pertsona etorkin guztiak, nazionalitatea zehaztu gabe.
No eres de DONOSTI si...	0	% 26,1	0	% 4.3	0	0	%73,9
Tu no eres de Erreterria si...	% 6.7	% 33,3	0	0	0	0	% 60,0
No eres de Irun si...	% 7.1	% 7.1	% 7.1	% 7.1	0	0	% 85,7
Eibar Opina	0	0	0	0	0	0	0
Tolosarras	0	0	% 11.1	0	0	0	% 77,8
Ez Zumarraga Urretxukoa...	0	0	0	0	0	% 25.0	% 75,0
Oñatikua naiz eta arro nago	0	0	0	0	0	0	0

Hori azal daiteke gure unibertso sozial-kulturalarekiko edo gure nortasun etniko-kulturalerekiko afinitate handiago edo txikiagoaren arabera hierarkizatzen dituzten etorkinen kategoriak daudelako. Izaola eta Zuberoaren Otridade Eskalari jarraiki, lau multzotan sailkatzen dira:

- Pertsona magrebtarrak **arraro** modura irudikatzen dira (gure alboan bizi dira, baina subjektiboki gugandik urrundu egiten dugu, hemen lekurik ez balute bezala, beti lekuz kanpo egongo balira bezala). Soilik muturrenekoak diren diskurtsoetan (berriro diogu, horiek ez dira ohikoenak tokiko "inurritegi" hauetan) **munstro** modura irudikatzen dira (hau da, kulturalki oso bateraezintzat jotzen ditugun pertsonak, hainbeste ezen nahi dugun bakarra hemendik kanporatzea baita). Aztertutako foroetan kolektibo hori "mairu" edo "marokoar" modura izendatzen da, bi hitzetako bat nahieran erabiliz kutsu negatiboa adierazteko, ez duelarik axola egiaz jatorri marokoarra duten pertsonen edo beste nazionalitate magrebtarra duten pertsonen aurrean gauden. Hala, nabarmentzekoa da foroetan gizarte-prestazioez hitz egiten denean, aipamenak pertsona etorkinei buruzkoak direla orokorrean edo beste nazionalitate batzuei buruz hitz egiten da; haatik, delinkuentziaz hitz egiten denean pertsona magrebtarrez hitz egiten da zehazki.
- Pertsona pakistandarrak ere diskurtso xenofoboan miran daude eta horiek ere arrarotzat hartzen dituzte; eta Latinoamerika, Afrika, Siria edo Europa Ekialdeko nazionalitatea dutenak zenbaitetan arrarotzat hartzen dira edo,



kasurik onenean, **atzerritar** gisa (objektiboki hizkuntza, ohitura edo zantzu fenotipikoei dagokienez, harrera-gizartean gehiengoa denetik ezberdintzen direnei aplikatzen zaien kategoria).

- “Inurri” **kanpotarren** laugarren kategoria (kanpotik etorri arren harrera-gizartearekin baterako elementuak dituztelako, esate baterako, hizkuntza, fisionomia, erlijioa edo ohiturak, onartu egiten diren pertsoneri aplikatzen zaie) ez da erabiltzen argitaratutako aipu xenofoboetan, baina bai gure herrien eta hirietako gure auzoen kultura aniztasuna kontra-argudioekin defendatzen duten erantzunetan.


Ikuspegi Behatokiaren ondorioaz berresten dira, Euskadiko kultura arteko bizikidetzari buruzko haren diagnosi berrienetako batean berresten zuenean “Euskadiko herritarrek sinpatia handiagoa agertzen dute antzekotasun edo parekotasun gehien duten jatorriekin, kulturalki hurbilagokoak direnekin. Sinpatia maila apalena jatorri pakistandar, errumaniar edo magrebtarra duten pertsonetikiko ageri da” (Ikuspegi, 79).



Iturria: Ikuspegi hemen

https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2019/bar_CAE_2019_CAS.pdf

Kultura arteko bizikidetzaren sinpatia eta antipatia horien ondorioak argiak dira.



6. Aipu xenofoboetan datu faltsuak ematen dira, iraindu egiten da, ez dute indarkeria akuilatzen eta kaleratzea eskatzen da. Horregatik, % 100 diskurtso akasgabeekin, mesfidatiekin, funtzionalistekin edo solidarioekin erantzuten dira.

Antipatia horiek hurrengo taulan islatuta geratzen dira. Bertan zazpi tokiko taldeetan bi urteetan argitaratutako mezu xenofobo guztietako edukia jaso dugu. Horiek datu faltsuak dituzten ala ez, irain egiten dute ala ez, ordezkari politikoak aipatzen dituzten ala ez, indarkeria akuilatzen ala ez edo kaleratzea eskatzen duten ala ez kontuan izanik banakatu dira.


Aipuen ezaugarrien araberako banakapena (portzentajea)

TALDEAREN IZENA	Irainak daude	Datu faltsuak daude	Politikariak aipatzen dira	Indarkeria akuilatzen dute	Kaleratzea eskatzen dute
No eres de DONOSTI si...	% 13.0	% 43,5	0	0	% 21,7
Tu no eres de Errenteria si...	% 26.7	% 33,3	0	% 13.3	% 46,7
No eres de Irun si...	% 35.7	% 42,9	% 7.1	0	% 50.0
Eibar Opina	0	0	0	0	0
Tolosarras	% 88.9	% 11.1	0	0	% 22,2
Ez Zumarraga Urretxukoa...	% 50.0	% 25.0	0	0	% 25.0
Oñatikua naiz eta arro nago	0	0	0	0	0

- Alderdi negatibo modura, **irainak dituzten mezuen gogortasuna** nabarmendu behar dugu (gogoan izan Luis de la Cortek proposatutako muturreko mezuen sailkapenean bi mota bereizten direla; gogorrek, krudelkeriaz beteak; eta akasgabeak, kultura aniztasuna ñabardurarik gabe defendatzen dutenak). Gogortasun hori hurrengo hiru foroetan ikusten da, horietatik irainak atera ditugu adibide modura:

A) DONOSTI (3)

- 1- **“Elepicentro de la música de mierda, tambiénllamadoraketón (Zabor amusikaren epizentroa, raketon izenez ere ezaguna). Con lo quemolabaelKomplotcuandoestabaTxarlyponiendohouse...(Zein ederra zen Koplottxarly zegoenean house ipintzen...) Ahora esunantroconmúsica para papitos y mamas (Orain aitatxo eta amatxoentzako musikadun zuloa da)”**.
→ (Donostian COVID kasuen epizentroa dantzalekuak direla adierazten duen albisteari buruz).
- 2- **“Lespillaron de pleno DOS MAGREBÍES DELGADOS DE UNOS 20 AÑOS (Bete-beteen harrapatu zituzten, 20 URTE INGURUKO BI MAGREBTAR). A martillo y**



cincel a las 5 de la mañana a una puerta de hierro sea **quemenos malquemuchaslucos no tenían (Mailua eta zizela hartuta goizeko 5etan burdinazko ate baten aurka, hau da, eskerrak oso bizkorak ez zirela)**". → (Aurrekariak zituen magrebtarra SPA batean lapurreta eginez).


- 3- "El 90% de menasson de lo peor (Akonpainamendurik gabeko atzerriko adin txikikoen % 90 deitoragarriak dira...) → (Aurrekariak zituen magrebtarra SPA batean lapurreta eginez).

B) ERRENTERIA (4)

- 1- "No tenemos por qué aguantar y darnada a **esta escoria** que no se está invadiendo (Ez dugu zertan aguantatu eta ezer eman inbaditzen ari zaigun **zabor pila** horri)". → (Kalean 2 atzerritarrek erasotutako neska bati buruzko albistea)
- 2- "Me la suda quemetachen de racista (Bost axola arrazista esaten badidate ere). Unassiones de ostiaterapia, joder que los expulsen, aquiserespetar a quien lo merece, joderya **está bien tanta puta mierda de tolerancia ni tanta puta chorrada (Ostiaterapia saio batzuk, putza, kanpora ditzatela, hemen merezi duena errespetatzen da, kaka, aski da horrenbesteko tolerantzia putarekin eta tontakeria putarekin)**". → (auzotik marokoarrak kanporatzeko sinadurak eskatzen dituen argitalpenetik)
- 3- "Yo los mandaba a todos estos a Marruecos **cagando hostias y acojones (Nik hauek guztiak Marokora bidaliko nituzke berehala, potrotaraino nago)**". → (mairua den gizon bat herri inguruan labana batekin eraso eginez dabilela dioen komunikatua)
- 4- "Que lo manden montado en un flotador a su **putopaís (Flotagailu batean muntatuta bere herrialdera bida dezatela)**". → (mairua den gizon bat herri inguruan labana batekin eraso eginez dabilela dioen komunikatua)

C) IRUN (5)


- 1- "Eso si estoy capacitada para decir que sólo tienen derecho ellos y los demás a callar!!" (Hori bai, badut baimena esateko eskubideak haiek soilik dituztela eta gainerakoak isiltzera!!); "**porque básicamente se tocan las narices y se pasan el rato en el café irun descansando! (izan ere, funtsean, potroak ukitzen dituzte eta denbora Irun kafean ematen dute atsedean hartzen!)**" → (Albistea: anbulatorioan sartu eta suntsitzen hasi da).
- 2- "Si la mayoría son **putos delincuentes son los extranjeros**, que los echen a sus países o hagan algo, que vienen aquí y se crean los putosamos de la calle (**Gaizkile puta gehienak atzerritara putak dira** eta, beren herrialdetara bota ditzatela edo zerbait egin dezatela, hona etorri eta kalean jaun eta jabe direla uste dute eta)" → (Bi "tipo" duela 5 minutu San Migel kalean borrokan ari ziren).
- 3- "Tienen mas billetes en las carteras que lo que cobroyo...", (Diru-zorroetan nik kobratzen dudana baino billete gehiago dituzte); otros usuarios dicen que todo es para los de fuera y para los de **qué que "nos de... p.....!! (beste erabiltzaile batek dio dena kanpokoentzat dela eta hemengoei popatik.....!!)**" → (Minbizia duen emakume bati buruzko albistea)
- 4- "A su país de vuelta (Beren herrialdera bueltan). Que encima están cobrando el rgi (Gainera DSBE kobratzen arituko da eta). **A tomar por culo ya (Popatik hartzera berehala)**" → (Nautikoko zonan izandako borrokan hildako gazteari buruzko albistea).
- 5- "Tienen un problema muy gordo **cones agentuza** y que no es justo lo de las ayudas y encima los van a matar a ostias (Oso arazo larria dute **jendaila horrekin**, eta ez



da bidezkoa laguntzen kontua eta gainera kolpeka hilko dituzte).(Nautikoko zonan izandako borrokan hildako gazteari buruzko albistea). “

Aipamen horiek **baztertzailen** kategorian sartzen dira (Perez Yruela y Rinkenek proposatutako diskurtso xenofoboaren beste sailkapen baten arabera, non bertan enpatiaren, erabilgarritasunaren, bidegabearen edo ukoaren arabera tipifikatzen baitira), izan ere, pertsona migratzaile eta errefuxiatuek eskubiderik izan behar dutenik ukatzen dute, aitzitik, zuzenean kanporatu egin behar direla iritziz.

- Aipamen gogor horien aurreko erantzuna (kasuen ia % 100ean ematen dena) tokiko foroetako beste kide batzuen eskutik iristen da, kontra-argudioa ematen dutenak diskurtso **mesfidatiekin** (onartu egiten dute pertsona atzerritarrek gure udalerriko auzotar izatea, betiere, babeserako tresna espezifikoak eman behar ez zaielarik gizarte-prestazio edota babeseko etxebizitza moduan) edo diskurtso **funtzionalistekin** (migrazioa argudio ekonomikoekin justifikatzen dutenak, izan ere, pertsona migratzaileek tokiko herritarrek nahi ez dituzten lanak hartzen dituzte, kutxa publikora zergak gaineratzen dituzte, edo pentsioak...) Zenbait kasutan, diskurtso baztertzailerei emandako erantzunek diskurtso **solidarioen** forma hartzen dute (zorrozki **akasgabeak** izan gabe, atzerriko pertsonen integrazio osoa defendatzen dutenak irmoki, gure kultura aberastasunerako beren ekarpena eskertuz).
- Kontra-erantzun horien “kalitateari” dagokionez (orokortuak, esaten genuen moduan, foro guztietan, baina nabarmenagoak batzuetan beste batzuetan baino, esate baterako, Errenterian Tolosarekin alderatuz), adierazi behar da ez dela **kontrakoa** datu edo informazio landuekin **konbentzitzen saiatzen den kontra-erantzun bat**. Gehienetan mezu arrazistaren kontrako jarrera bat azpimarratzera mugatzen da, zenbaitetan laidoan ere sartuz.



7. Kontra-erantzunak lehen pertsonan: urriak, errespetuzkoak, bizipenekoak.

Aurreko ondorioaren harira, garrantzitsua da gaineratzea, gehiengo ez bada ere, udalerrian bizi den eta foro hauetan parte hartzen duen kolektibo immigrantetik bertatik datorren kontra argudio bat dagoela. Berezko bizipenetik, udalerrira etorri izanaren ondorioz, lan egoeratik edota familiaren egoeratik da eratu. Kontra-kontakizun horren tonuan errespetu gehiago nabari da modu ez arrazoizkoan azaldutakoak baino. Herri handiagoko foroetan, Donostian kasu, bizitzako historiari, datu edota txostenetan oinarritutako kontra argudio bat gaineratzen zaio.


Bi elementu horien baturak (bizipenak eta neutralagoak diren kontuak) kanpotarrak, atzerritarrak, arraroak edota munstroak ez, baizik eta, besterik gabe, jatorri kultura anitzeko auzotar direnen lehen pertsonako ikuspegia elikatzen du.

8. "Tokiko inurritegiak" balioan jartzeko proposamena.

Ikerketa honen ondotik eta azaldutakoa ikusirik, laburpen exekutibo hau amaitzeko, aztertu ditugun Facebook sareko tokiko foroak, eta gizarte-sareetan haien antzekoak direnak, balioan jartzeko gure proposamena luzatzen dugu. Gaur egun gure ezberdintasunak eta baterako elementuak azaltzeko topalekuak bilatzen ditugu. Foro horien izendatzaile komuna udalerrri bateko kide izatea da. Kohesio elementu horretatik abiatuz, tokiko foroak herriko auzotarren gizarteratzea lantzeko aukera bat baino ez dira.

Gure proposamena honetan oinarritzen dugu:

- 1.** Gipuzkoako Facebook sareko tokiko zortzi foro (7 + Pasaiaiko foroa) aztertu ditugu eta "gorrotozko diskurtso" modura ezagutzen denaren foku sortzaile ez direla ikusi da. Horrek ez du esanahi zenbaitetan populazio etorkinen aurkako diskurtso iraingarria duten aipu jakinik egiten ez denik. Halako mezuak ematen direnean, oro har herriko delinkuentziearekin eta herritarren segurtasunarekin lotutako albisteen aurreko erreakzio bat izaten da. Diskurtso arrazista bat sorrarazten duten foroak beste modu batekoak izaten dira; "tokiko inurritegietan" gehiago dira kohesioa ekar dezaketen gaiak bizikidetzaren areagotzea eragin dezaketenak baino.



2. Pasai Antxon izandako gertakariekin ez genuke ondorioztatu behar gizarte-sareak gorrotoa sortzeko soilik balio dutenik. Facebook sareko tokiko foroak eraikitzeke abagune handiak eskaintzen dituen tresna bat da eta ez genuke deabrua balitz bezala hartu behar. Arazoa mezua da, ez mezularia. Txostenaren lehen kapituluan azaldu dugu zer-nolako jarrera hartzen dugun gizakiok sareetan post bat argitaratzen dugunean: akzio eta erreakzio mekanismoak ezagutzen ditugu. Heziketa da kontua, 2. kapituluan aztertu ditugun jokabidearen patrioiak ez daitezen inurritegian sartu.

3. Foroak kohesiorako tresna izan daitezkeela adierazteko froga mezu arrazista edo xenofoboaren aurrean sortzen diren kontra-kontakizun kopuru handia da. Haatik, ikerketak erakusten duenez, ezinbestekoa da kontra-argudiorako pedagogia bat txertatzea. "Zurumurruek aurkako agenteen" sare bat sortuz udalerritik batzuetan gauzatzen diren esperientziak baliagarri izan daitezke, esate baterako, erreakzio emozional hutsetik harago doazen kontra-argudioak eskaintzeko, baina aldi berean argudioarekin liluratuz, ongi funtsatutako kontra-kontakizun batek foroan "irmotasuna ezartzen" duenaren sentipenik gabe. Lan hori eraginkorra izan dadin ezinbestekoa da herriko auzotarren inplikazioa. Horri dagokionez, foroetako administratzaileak prestatzea lagungarri izan liteke pedagogiako lan horretan.

4. Eta gainera inurriak ez garenez, kohesioa oinarritzkoena den mailan, tokikoan, zaintzeko erreakziorako gaitasuna dugu. Facebook sareko foroak lagungarri izan ditzakegu lanketa horretan. Hartako konfigurazioa eta ezaugarriak abagune dira jatorri ezberdineko auzotarrak plaza publiko berri batean proposamenak luzatzen eta eztabaidan ari daitezen.